



LESAKAKO UDALA
Plaza Zaharra, 1
31770 Lesaka (Nafarroa)
IFZ P3115200B
[Telf. 948637005](tel:948637005)
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

ALKATEAREN 511/2024 EBAZPENA, ABUZTUAREN 27KOA, ANDRA MARIA ZAHAR ETXEKO GEROKULTORE LANPOSTUAK OPOSIZIO-LEHIAKETAREN BIDEZ BETETZEKO ONARTU ETA BAZTERTUTAKO IZANGAIEN BEHIN BETIKO ZERRENDA ONESTEN DUENA, OPOSIZIOAREN PROBA NON, NOIZ ETA ZER ORDUTAN EGINEN DEN ADIERAZTEN DUENA ETA DEIALDIAREN EZAUGARRIEN TAULAN ZEHAZTEN DEN ETA UDALAREN ATARIAN EGONEN DEN WEB FITXAN ARGITARATZEKO AGINDUA EMATEN DUENA.

18373T ESPEDIENTEA.

Alkatearen 216/2022 Ebazpenaren bidez (2022ko 103. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, maiatzaren 26koa; urriaren 31ko 509/2022 Ebazpenak aldatua –2022ko 228. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, azaroaren 17koa–) onetsi da 2022rako lan publikoaren eskaintza, ezartzen dituen enplegua egonkortzeko prozesuak eta deialdi bereziak, Enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legeari jarraikiz.

Osoko Bilkuran 2022ko azaroaren 16an hartutako erabaki baten bidez, toki erakunde hau partez atxikitzen zaio uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legearen II. tituluan jasotako erregulazioari (foru lege horren bidez neurriak hartzen dira egonkortze-prozesuak gauzatzeko, Nafarroako Administrazio Publikoetan, Enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorioz).

Lesakako alkatearen abenduaren 14ko 580/2022 Ebazpenaren bidez onetsi zen gerokultore lanpostu hutsak oposizio-lehiaketaren bidez betetzeko deialdia, aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko prozesu bereziaren barnean, Enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legean xedatutakoaren arabera. Ebazpen hori 2022ko abenduaren 30eko 263. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, ale berezian, eta zuzenketa 2023ko urtarrilaren 16ko 10. Nafarroako Aldizkari Ofizialean.



LESAKAKO UDALA
Plaza Zaharra, 1
31770 Lesaka (Nafarroa)
IFZ P3115200B
[Telf. 948637005](tel:948637005)
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

580/2022 ebazpenaren 6. puntuaren arabera, onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onetsiko da, eta deialdiaren ezaugarrien taulan zehazten den eta toki erakundearen atarian egonen den deialdiaren web fitxan argitaratzeko aginduko da.

Halaber, 6.2. oinarriak hauxe dio: Behin-behineko zerrenda argitaratu eta biharamunetik hasita, izangai baztertuek hamar egun balduneko epea izanen dute erreklamazioak aurkezteko eta, akatsik egin badute, haiek zuzentzeko. Erreklamazioak toki erakundearen atariko deialdiaren web fitxaren bidez aurkeztuko dira.

Behin behineko zerrenda onartu zen 2023ko uztailaren 27ko 330. ebazpenaren bidez eta Udaleko web orrian argitaratu zen.

Ikusirik epean barne baztertuak aurkeztutako dokumentazioa.

6.3. oinarriak hauxe dio: Erreklamazioak aurkezteko epea igaro eta horiek ebatzi ondoren, onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onetsi eta deialdiaren web fitxan argitaratuko da.

Ondorioz, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 21.1 artikuluan ezarritako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT:

1.) Andra Mari Zahar Etxeko gerokultore lanpostuetarako (8 lanpostu, %75ko lanaldian) onartu eta baztertuen izangaien behin betiko zerrenda onartzea, aldi baterako enplegua egonkortzeko eta finkatzeko ezohiko prozesurako lanpostu hutsen deialdia, abenduaren 28ko 20/2021 Foru Legean, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzkoan, xedatutakoaren arabera.

ONARTUAK:

- **GEROKULTOREA** - 8 lanpostu, %75ko jornada:



LESAKAKO UDALA
Plaza Zaharra, 1
31770 Lesaka (Nafarroa)
IFZ P3115200B
[Telf. 948637005](tel:948637005)
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

1.- ***7452**

2.- ***3685**

3.- ***2287**

4.- ***7536**

5.- ***6794**

6.- ***6912**

7.- ***8074**

8.- ***6695**

9.- ***1539**

10.- ***6890**

11.- ***5519**.

BAZTERTUAK:

Inor ere ez.

2.) Oposizioko lehen proba egiteko lekua, eguna eta ordua zehaztea:

-Proba teorikoa: 2024ko irailaren 18an, goizeko 9,30etan, Lesakako Udaleko liburutegian (Komentu kalea, 1, Lesaka).



LESAKAKO UDALA
Plaza Zaharra, 1
31770 Lesaka (Nafarroa)
IFZ P3115200B
[Telf. 948637005](tel:948637005)
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

- 3.) Ebazpen hau Lesakako Udaleko web orrian eta atariko deialdiaren web fitxan argitaratzeko agindua ematea.
- 4.) Ebazpen hau epaimahaikideei jakinaraztea.”

ALKATEA,

IDAZKARIA,